

### XIII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

#### Otoitza

Jainko Jauna,  
zure seme-alabatzat hartuz, argiaren seme-alaba egin gaituzu;  
iguzu, ez gaitzala inguratu gezurraren ilunbeak,  
eta zure egiaren argi ederrean bizi gaitezela beti.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Jak 1, 13-15; 2, 23-25

*Deabruaren bekaizkeriaz sartu zuen heriotza lur gainean.*

Jakinduriaren liburutik

Ez zuen Jaungoikoak egin heriotza,  
ez du atseginik bizien hondamendian;  
bizirik irauteko egin zituen Hark gauza guztiak;  
munduko izaki guztiak osasungarri dira;  
ez da horietan heriotzarako pozoirik,  
ezta leize zuloaren aginterik ere lur gainean;  
zuzenbidea hilezkorra baita.  
Hilezkor egin zuen Jaungoikoak gizakia,  
eta bere izatearen irudi zuen egin .  
Deabruaren bekaizkeriaz sartu zen heriotza munduan,  
harenak direnek sumatuko dute berengan.

ERANTZUN SALMOA: Sal 29, 2 eta 4. 5-6. 11-12a eta 13b

R/. **Goretsiko zaitut, Jauna,  
onik atera nauzulako.**

Goretsiko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako,  
etsaiak nitaz pozten utzi ez dituzulako.  
Jauna, Leizetik nire bizia atera duzu,  
zulora doazenengandik bizirik gorde nauzu. R/.

Eresi egiozue, zintzoak, Jaunari,  
eman eskerrak Haren izen santuari.  
Une bateko da Haren haserrea,  
bizi guztirako Haren on izatea.  
Negarra dator arratsaldean, baina poza goizean. R/.

Entzun niri, eta nitaz erruki, Jauna,  
izan zakizkit laguntzaile, Jauna.  
Negarra, dantza bihurtu didazu,  
Jauna, ene Jainko, eskerrak nik Zuri beti. R/.

## II. IRAKURGAIA: 2 Kor 8, 7. 9. 13-15

*Zuen ugariak, senide behartsuen eskasia betetzen du.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Aberats zarete sinesmenean, hitzean, ezagueran, denerako arduran eta gureganako duzuen maitasunean. Izan zaitezte aberats, eskuzabalean ere. Badakizue Jesu Kristo gure Jaunaren eskuzabala: aberats izanik, behartsu egin zen zuengatik, Haren behartsu izatetik zuek aberats zaitezten. Hemen darabilgun asmoa ez da besteak lasaitu eta zuek estutzea, guztien berdintasuna baizik.

Gaurregun, zuen ugariak haien eskasia betetzen du; eta egunen batean haien ugariak zuen eskasia beteko du; honela guztion berdintasuna egingo da. Hori dio Liburu Santuak: «Asko bildu zuenak, ez zuen gehiegirik; eta gutxi bildu zuenak, ez zuen gutxieirik».

EBANJELIOA: Mk 5, 21-43

**Aleluia:** 2 Tm 1, 10b

R/. Aleluia.

V/. Jesu Kristo gure Salbatzaileak hondatu du heriotza, eta argitara atera bizia, berri onaren bidez. R/.

*Irakurgaia laburragoa egin nahi bada, [ ] kako artean ematen den zatia utz daiteke.*

*Ume, zuri esaten dizut: altxa.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, Jesus ontzian itsasoaz beste aldera itzuli zenean, jende asko bildu zitzaion eta itsas ertzean gelditu zen. Etorri zen sinagogako nagusietako bat, Jairo izenekoa, eta ikusi orduko, oinetan ahuspeztu, eta arren eta arren ari zitzaion: «Alabatxoa azkenetan daukat; zatoz, eta ezariezazkiozu eskuak gainean, senda dadin eta bizi». Jesus harekin joan zen, jendetza haundia zuela ondotik, estutzen.

[ Bazen han, hamabi urte haietan odoljario zegoen emakume bat, sendagile askotan ibilia, zituen guztiak horretan xahutu zituena, eta sendatu beharrean gero eta okerrago zihoana. Jesusen berri entzunda, jende artean joan zitzaion atzetik, eta soinekoa ukitu zion, bere baitan honela baitzioen: «Soinekoa bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Eta berehala odol iturria agortu zitzaion, eta sendatu zela sumatu zuen bere gorputzean.

Jesus, indar bat atera zitzaiola oharturik, jendearengana bihurtu zen berehala, eta esan zuen: «Nork ukitu dizkit soinekoak?» Ikasleek erantzun zioten: «Ikusten duzu jendeak estutzen zaituela, eta "nork ukitu nau" diozu?» Eta ingurura begira zebilen, hori egin zuenaren bila. Orduan emakumea, gertatu zitzaiona jakinik, beldur-ikaratan, ahuspez jarri zitzaion, eta egia esan zion. Baina, Jesusek esan zion: «Alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta osasunean». Oraindik hizketan ari zela, sinagogako nagusiaren etxetik etorri ziren, esanez: «Hil da zure alaba. Zertarako eman neke gehiago Maisuari?» Baina Jesusek, esaten zutena entzunik, honela esan zion sinagogako nagusiarri: «Ez izan beldurrik; zuk, sinets bakarrik!» Eta ez zuen inor hartu nahi izan lagun, Pedro, Santiago eta Joan, Santiagoren anaia, besterik.

Iritsi ziren sinagogako nagusiaren etxera, eta hango zaratak, jendearen negarrak eta garrasiak ikusten egon zen. Gero sartu eta esan zion: «Zertarako zarata eta negar

hila; lo dago». Haiek, ordea, barre egiten zioten.

Baina Hark, denak kanpora aterarazi, eta nexkaren aitamak eta Berekin zeramatzanak hartu zituen, eta nexka zegoen tokira sartu zen. Nexka eskutik hartu eta esan zion: «Thalita, kum»—hau da: «Ume, zuri esaten dizut: altxa»—. Berehala zutitu zen nexka, eta ibiltzen hasi zen; hamabiren bat urte zituen. Guztiak harrিতා gelditu ziren; eta Jesusek zorrotz agindu zien, inork ez zezala jakin; eta nexkari jaten emateko esan zien.

### **Oparigaien gainekoa**

Jauna, Zuk ematen diezu sakramentuei bere indarra;

Iguzu, gure zebitzuak gai egin gaitzala

zure dohain santuak hartzeko.

Jesu Kristo.

### **Jaunartze ondorengoa**

Eskaini eta hartu dugun opariak

eman diezagula bizia, Jauna:

maitasunean beti Zurekin bat eginik,

fruitu iraunkorrak ekar ditzagun.

Jesu Kristo.